

Gure enpresaren UXAI izena izango du. Produktua moto elektriko bat izango da. Moto elektriko honek, gaur egungo arazo garrantzitsu bati egiten dio aurre,hots, kontaminazioari. Beste hainbat motorekiko bereizgarri batzuk izango ditu, esaterako, kutsadura murrizten du, gaur egungo arazo larrietariko bat da eta. Gainera, herri artean aurki ditzakegun kotxe ilarak ekidin daitezke, honek izango duen diseinu arina dela eta, eta nola ez, diseinu oso maneiagarria duelako. Diseinuari dagokionez, esan beharra dago diseinu berritzaile eta erakargarri bat izango duela. Horrez gain, gurpil lodi batzuk erabiliko ditugu, gidariaren oreka eta segurtasuna hobetzeko.

Honez gain, gure motorraren bereizgarri nagusia honako hau izango da: gure motorrak osatzeko beharrezko zaizkigun piezen %90a pieza birziklatuak izango dira, hau da, lehendik beste moto eta kotxeetan erabilitako piezak erabiliko ditugu gure motorra osatzeko. Hori bai, beti ere, kalitatezko piezak izango dira.